

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Erronkari

Aurkibidea

Udalerria: Erronkari

Sarrera

Erronkari Nafarroa Garaiko ipar-ekialdeko udalerri bat da, izen bereko ibarreko herri nagusia. Nafarroako hiriburutik 90 kilometrora dago.

Herria Zangozako merindadearen ekialdeko muturrean dago, NA-137 errepidearen parean. Eska ibaiak zeharkatzen du herria.



Erronkarik Uztarroze eta Urzainkirekin egiten du muga iparraldean, Garderekin ekialdean, Bidankozerekin mendebaldean, eta Burgirekin hegoaldean.

Erronkariko auzoak Arana, Castillo, Iriarte, Iriondo eta San Juan dira.

- **Biztanleak:** 250
- **Euskaldunak:** -

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **20**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **20**

Proiektuak

- Gazte gara gazte
- Periferiaren mugak

Hizlariak

Arkaitz Artutx Alastuei *Arki* (1996)



1996ko martxoaren 28an Iruñean jaioa, Sanduzelai auzoan bizi izan da beti, baina aita Erronkarikoa eta ama Burgikoa dituenetz, Erronkari ibarrean eman du bere bizitzako zati handi bat. Mendizalea eta kirolaria da, eta elektromekanika ikasketak egiten ari zen elkarriketatu genuenean. Gainera, ska estiloko musika egiten duen talde bateko abeslari da: Eskarmentu. Parranda eta lagunekin egotea ere oso gustuko ditu Arkaitzek, eta Erronkariko Gazte Asanbladako partaide da.

Koldo Viñuales Galé (1951)



Erronkarin jaioa. Koldok ez zuen euskararekin harremanik izan Erronkaritik irten arte. Euskara ikasita itzuli zen bere jaioterrira, eta herrian euskararen presentzia eta ezagutza handitzea izan zen bere helburua.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zaletasunak: mendia eta perretxikoak (ERK-001/005)

Kirolaria eta mendizalea da. Erronkarin hori egitea erraza dela dio. Perretxikoak biltzera joaten da aitarekin eta ohitura hortik datorkio. Erronkariko bailaran perretxiko biltzea ez dago araututa.

2. Mendizalea eta txirrindularia (ERK-001/007)

Bizikleta hartu eta mendira joaten da Arkaitz. Erronkari BTT lasterketan parte hartu zuen behin eta berriz parte hartzeko gogoz dago. Bailaran dauden kirol aukerak aipatzen ditu.

3. Musikaria (ERK-001/008)

Kirolaria izateaz gain, musika talde bateko abeslaria ere bada. Bere Erronkariko lagun batek Iruñeko lagunekin talde bat zuen, baina taldeko abeslariak abesteari utzi zuzenean, berari abesteko aukera eman zioten.

4. Abestea: familiako tradizioa (ERK-001/010)

Arkaitzi aitarengandik datorkio abesteko ohitura hori. Artutx familiakoak herriko kantari ofizialak dira, eta festetan musika tresnak hartuta herriko kaleak alaitzen ibiltzen dira.

5. Erronkariko bailarako herritarren harremanak (ERK-001/012)

Erronkariko gazteak orain garai batekoak baino gutxiago elkartzen dira. Bailarako helduak gazteak baino sarriago biltzen dira.

6. Bailarako gazte asanblada (ERK-001/014)

Bailarako gazteek, euren artean gehiago ezagutzeko, gazte asanblada sortu dute.

7. Musika eguna: bailarako herritarren elkargune (ERK-001/015)

Ikasturtean zehar ospatzen den Musika Eguna bailarako ikasleen eta herritarren topagunea da.

8. "Eskarmentu" ska taldeko kide (ERK-001/017)

Arkaitzek duela hiru urtetatik "Eskarmentu" izeneko ska talde batean abesten du. Zortzi taldekide dira, iruindarrak, baina nork bere herria du Nafarroako beste tokiren batean. Asteburua probesten dute Iruñatik euren herrira joateko.

9. Uskararen Eguna, Erronkarin (ERK-001/018)

Arkaitz eta bere taldea Uskararen Egunerako abesti bat prestatzen ari dira. Egun hori Erronkarin euskararen alde egiteko sortutako egun bat da, eta Eskarmentu taldeari aurtengo kanta egiteko eskatu diote. Uskararen Eguna antolatzeke elkartea guztiz irekia da, eta nahi duenak parte hartzen du.

10. Erronkariko gazteak I (ERK-001/020)

Erronkariko gazte gehienek bi kuadrilla dituzte, bat Iruñean eta bestea Erronkarin.

11. Erronkariko gazteak II (ERK-001/021)

Erronkariko bailarako gazteak parrandan bakarrik elkartzen direla dio Arkaitzek, eta bertako gazte asanbladak hori aldatzeko nahia duela. Oro har, herritarrek begi onez ikusten dute bailarako gazteak antolatuta egotea.

12. "Eskarmentu" musika taldearen proiektuak (ERK-001/023)

Eskarmentuko taldekideak maketa bat grabatzen hasi dira, aurrera begira disko bat ateratzeko asmoz. Horretarako, musika talde batek izan dezakeen arazo nagusia diru falta da.

13. Erronkaritik Enkarterrietara (ERK-003/001)

Koldo euskaldun berria da. Erronkaritik irten arte ez zuen euskararen berririk izan, Balmasedan "interno" zegoela izan zuen lehenengo harremana gure hizkuntzarekin.

14. Euskararekin Erronkarira (ERK-003/003)

Erronkarira itzuli zenean, arrotza sentitu zuen bere burua, batez ere, jendeak euskararekiko zuen desprezioagatik.

15. Erronkariko euskararen galera (ERK-003/004)

Erronkarin euskara galdu egin zen hiru belaunalditan zehar. Koldok galeran eragina izan zuten 5 faktore azaltzen ditu.

16. Euskara berriz Erronkarin (ERK-003/005)

Koldok arraro xamar sentitu zuen bere burua euskara ikasita itzuli zenean Erronkarira. Euskaraz agurtzeko hautu pertsonala egin zuen, eta horregatik 'Kaixo' ezizena jarri zioten.

17. Enaren ibilbidea (ERK-003/010)

Enaren ibilbidea: Hego eta Ipar Euskal Herria lotzen dituen ibilbidea.

18. Ipar Euskal Herriarekin harremana (ERK-003/012)

Oraindik ere Ipar eta Hego Euskal Herrien arteko harremana mantentzen da "Mugarrien jaialdia"rekin. Gainera, Kebenko euskara elkarteak ere Enaren ibilbidea egiten du urtean behin.

19. Euskararen egoera urtez urte aldatu da Erronkarin (ERK-003/014)

Euskararen egoera urtez urte aldatzen joan da Erronkarin, orain normalizatu egin da eta ongi ikusia dago. Aldaketa horretan Kebenko euskara elkarteak garrantzia eta indar handia izan du.

20. Euskararen etorkizuna Erronkarin (ERK-003/018)

Koldok euskara berreskuratzeko bederatzi - hamar belaunaldi beharko dituztela uste du, baina baikorrak izan behar garela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com